

USURBIL / Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko bi ekitaldi izango dira

Liburuaren Nazioarteko Eguna datorren apirilaren 23an ospatuko da; liburuen eta egile-eskubideen eguna, 1996an Unescok aukeratu zuenez geroztik. Izan ere, egun berean, baina lau mende lehenago, 1616ko apirilaren 23 batean William Shakespeare, Miguel de Cervantes eta Garcilaso de la Vega idazleak hil ziren. William Wordsworth poeta ingelesa jaio zen 1850ean, Vladimir Nabokov 1899an eta Josep Pla zendu 1981ean. Literaturako hainbat pertsonaiak egun horrekin lotura zutela-eta, Unescok egun hori aukeratu zuen Nazioarteko Liburu Eguntzat.

Usurbilgo Udalak egun hori dela eta ekitaldi bikoitza antolatu du ostegunerako eta ostiralerako. Ostegunean, apirilaren 23an, ipuin kontalaria izango da Sutegi eraikinean dagoen udal liburutegian. 18:00etan hasita Lupe Lekuona ipuin kontalariak euskal ipuin tradizionalak kontatuko ditu 5 urte arteko umeentzat. Horrez gain, gaur egungo idazle euskaldun zein atzeritarren ipuinak ere entzun ahal izango dira bertan.

Ostiralean, berriz, literatura eta musika emanaldia izango da Sutegi eraikineko auditorioan 20:00etatik aurrera. Testuak eta musika uztarturik, Esanen aduanan ekitaldian hainbat idazle eta musikari ospetsuk emango duten ekitaldi paregabeaz goatzeko aukera izango da. Mugak, pasaporteak, trukeak, mezuak, eskutitzak, mapak, kartografiak. Denetarik aurkituko duzue Esanen aduanan.

Usurbilen bizi den Yolanda Arrieta, Leire Bilbao eta Miren Agur Meabek irakurriko dituzte testuak eta Esther Gabiola (soinua, biolina, perkusioa) eta Uri-tze Laka (flauta) izango dira musikariak.

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria (1963) Lea-Artibaiko Etxebarrin jaio zen eta Usurbilen bizi da orain. Irakasle ikasketez gain, An-tzerkia eta Kultur eta Gizarte antropologia egin ditu. Idazketa sor-tzailearen inguruko tailerrak gidatzeaz gain, hainbat liburu argitaratu ditu, haur eta gazte literaturan. Literatura ardatz duten hainbat produktu ere sortu ditu. Une honetan, irudia eta hitza lotzeko proiektuetan murgildurik dabil eta helduentzako narrazio liburu batean.

Miren Agur Meabe Lekeition jaio zen. Giltza argitaletxeko zuzendaria da eta, besteak beste, honako liburu hauek idatzi ditu: Ohar orokorrak, Azalaren kodea, Itsaslabarreko etxea, Urtebete itsasargian eta Zer da, ba, maitasuna?. Leire Bilbao Barruetabeña Ondarroan jaio zen 1978an eta hainbat komunikabidetan aritu da kolaboratzaile gisa. Zenbait sari ere jaso ditu bertso eta literatura lehiaketetan.